ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko martxoaren 13a, asteazkena • 31 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2019koa. Ordaintzeko epearen hasiera

2019ko martxoaren 15etik apirilaren 12ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2019ko ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zerga-bilketarako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekarguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Harana, 2019ko martxoaren 6a

Alkate-lehendakaria
PEDRO SAN VICENTE CORRES

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.03.13 06:32:47 Z